

Listeriosi-agerraldia haragi produktuetan

Euskal Autonomia Erkidegoan ez dago kaltetutako produktuak merkaturatu izanaren berririk, ezta kaltetutako pertsonaren berririk.

Azken orduko berria

2019ko abuztuak 29, 12:00



AESANek jakinarazi duenez, aurrez jakinarazi gabeko beste produktu batzuk identifikatu dira; hortaz, alerta MAGRUDIS SL enpresak eginiko **“LA MECHÁ” MARKAKO PRODUKTU GUZTIETARA** zabaldu da, baita Elikagai Enpresen eta Elikagaien Osasun Erregistro Orokorrean (RGSEAA) 10.025920/SE edo 40.057087/SE zenbakia duten identifikazio-markek merkaturatu eta babestutako produktuetara ere.

Abuztuak 29ko eguneratzea - AESAN

(http://www.aecosan.msssi.gob.es/AECOSAN/web/noticias_y_actualizaciones/noticias/2019/Brote_Listeria_Carne_Actualizacion_siete.htm)

Abuztuaren 16an, elikagaien segurtasunaren arloko Estatuko agintaritza eskudunak (AESAN) jakin zuen *Listeria monocytogenes* **bakterioak kontaminatutako haragia jatearen ondorioz sortutako zenbait agerraldi izan zirela Andaluzian**. Hori horrela, beharrezko neurriak hartu dira kaltetutako produktuak merkatutik kentzeko eta agerraldiaren kausak ikertzeko.

Hasiera batean, jakin genuen agerraldia sorrarazi zuen produktua **“Magrudis SL” enpresak egindako “La Mechá” markako haragi urdaizatua izan zela, “Comercial Martínez León” enpresak merkaturatua**. Beranduago jakin dugu, ordea, enpresa bereko **beste produktu batzuk** ere kaltetuta daudela. Gainera, jakin dugu haragi urdaizatua hori **etiketatzeari buruzko araudia bete gabe merkaturatu dela**, marka komertzialik gabe merkaturatu baita.

Produktu gehienak **Andaluzian** banatu eta merkaturatu dira, eta, neurri txikiagoan, baita autonomia-erkidego hauetan ere: Madril, Extremadura, Katalunia, Gaztela-Mantxa, Gaztela eta Leon eta Kanariak.

- ! Listeriosia EZ da pertsonatik pertsonara kutsatzen. Kontaminatutako elikagaiak janda kutsatzen da batez ere eta amarengandik seme-alabei karenaren bidez edota erditzerakoan.

Arrisku handiko taldeak



Paziente immunodeprimituak



Adinekoak



Bularreko haurrak eta haur txikiak



haurdun dauden emakumeak

Gomendio orokorrak

- **Ondo etiketatutako produktuak bakarrik erosi.** Haragi-produktuen etiketek marka obal bat izan behar dute, zeinetan produktua merkaturatzeaz arduratu den establezimenduaren osasun-erregistroaren zenbakia (RGSEAA) agertzen baita.
- Etxean “**La Mechá**” markako produkturen bat dutenek, **ez dute kontsumitu behar**, eta dagoeneko kontsumitu badute eta sintomaren bat badute, osasun-zentro batera jo behar dute.
- **Haurdun dauden emakumeek erreferentziatzko informazio ofiziala** kontsultatu behar dute, edo osasun-arloko profesionali galdetu.
- **Etxeetan, garrantzitsua da kutsadura gurutzatua saihestea.** Horretarako, beste elikagai batzuk uki ditzaketen gainazalak eta tresnak ondo garbitu eta erabili behar dira.

Informazio gehiago

ELIKAREN elikagaien segurtasunari buruzko atalean, agente kimiko eta biologikoei loturiko arriskuen fitxa teknikoak (<https://elikagaiensegurtasuna.elika.eus/arriskuen-fitxak/>) aurki daitezke. Fitxa horien artean dago, besteak beste, Listeriari buruzkoa:

Listeria buruzko fitxa teknikoa - ELIKA (<https://elikagaiensegurtasuna.elika.eus/listeria/>)

Horrez gain, infogramak (<https://www.elika.eus/eu/arriskuen-infogramak/>) eta fitxa teknikoen laburpenak ere ikus daitezke; besteak beste, Listeriarena:

Listeria infograma- ELIKA (https://www.elika.eus/wp-content/uploads/sites/10/2018/01/Listeria_eu_opt.pdf)

Agerraldiari buruzko erreferentziak

Berriak eta eguneratzeak- AESAN
(http://www.aecosan.msssi.gob.es/AECOSAN/web/noticias_y_actualizaciones/noticias/listados/aecosan_listado_noticias_2019.htm)

Informazioaren eguneraketa, Euskadiko osasun arloko profesionalentzat - Eusko Jaurlaritza

~~(<https://www.osakidetza.euskadi.eus/albisteak/2019/listeriosis-informazioaren-eguneraketa-euskadiko-osasun-arloko-profesionalentzat/ab84-procon/eu/>)~~

ELIKA . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 . berri@elika.eus
(<mailto:berri@elika.eus>)